

## **HELDUENTZAKO IKASTAROEN ARAUDIA**

### **2023-2024**

#### **2023-2024 DENBORALDIKO EGUTEGIA**

- Kirol Ekintzak programaren barruko jarduerak urte osoan zehar eskainiko dira.
- “Klub” jarduerak berariazko egutegiaren arabera emango dira.
- Jaiegun ofizialak ez dira eskola-egunak izango.
- Hurrengo aldirian programazio berezi batek ordezkatzuko ditu ohiko eskolak:
  - 2023ko abenduaren 21etik 2024ko urtarrilaren 7ra
  - 2024ko martxoaren 25etik apirilaren 7ra
  - 2024ko ekainaren 17tik urriaren 1era

#### **KIROL EKINTZAK**

- “Kirol Ekintzak” programak areto- eta igerileku-jardueren sorta honetan eskaintzen diren jarduera guztietara sartzeko aukera ematen du (“Klub” jardueretara izan ezik), sarbide mugarik gabe, nahiz eta alde zuzeneko erreserba eguneko bi klasetara mugatuta egon.
- Oro har, 14 urtetik aurrera parte hartu ahal izango da Kirol Ekintzak jardueretan, 16 urtetik gorakoentzat gomendatutako jardueretan izan ezik (Cross eta Body Active)
- Jarduera zehatz batera sartzea aretoaren eta jardueren aforoak mugatuko dute.

#### **JARDUERA BATEN PLAZA ERRESERBATZEA**

- Aldez aurretik joan nahi den jardueran plaza erreserbatzea gomendatzen da.
  - Plazaren erreserba 48 ordu lehenago egin ahal izango da, bide hauetakoren batetik: BeOne App aplikazioa, [www.trainingmapp.com/webtouch](http://www.trainingmapp.com/webtouch) webgunea edo instalazioetako totemetatik.
- **ERRESERBAK BALIOGABETZEA:** Erreserba saioa hasi baino ordubete lehenago arte balio gabetu ahal izango dira.
- **ERRESERBAK BALIOZTATZEA:** Saioa hasi baino 15 minutu lehenagotik derrigorrezkoa da erreserba balioztatzea, areto bakoitzean instalatutako pantaila irakurgailutik txartela/eskumuturrekoa pasatuz.
- Saioa hasteko orduan balioztatu ez diren plazak libre utziko dira erreserbatu ezin izan dituzten eta zain dauden pertsonen erabili ahal izan dituzten.
- **SAIOETARA SARBIDE ZUZENA:** Saio jakin batean alde zuzeneko erreserbarik egin ez bada eta saio horrek plaza libreak baditu, jarduera egiten den aretoko pantailatik zuzenean balioztatu ahal izango da.
- **ZIGORRAK:** Plaza baieztatzen ez bada eta erreserba ezeztatzen ez bada, falta bat sortuko da. 7 eguneko epean bi hutsegite metatzen dituen pertsonari zigorra ezarriko zaio. Zigor horren ondorioz, pertsona horrek ezin izango du 7 egunez plazarik alde zuzeneko erreserbatu, ez BeOne App bidez, ez web bidez, eta bakarrik Saioa egiten den egunean eta instalazio berean erreserbatu ahal izango du aurrez aurre.

#### **KLUB JARDUERAK**

- “Klub” jardueretako taldeak itxiak izango dira, eta parte-hartzaile berriei sartzeko aukera emango zaie, baldin eta plaza liberrik badago. Pertsona bakoitzak talde bakar batean eman ahal izango du izena.

- Txandaka lan egiten duten pertsonen bi talde desberdinetara joatea eskatu ahal izango dute. Talde bakoitzak plaza bat onartuko du gehienez egoera horietarako.
- Igeriketa ikastera bideratutako “klub-jardueretan” alde zuzeneko proba bat egin beharko da, progresio egokia ziurtatzeko eta ikasteko prozesua errazteko.
- Ikasleak izandako aurrerapenaren arabera, beste talde batean kokatu ahal izango da.

#### **PLAZAK BERRITZEA**

- Klubeko jardueretan izena eman duten ikasleek beren plaza mantenduko dute denboraldi osoan.
- “Klub” jardueren kasuan, plazak automatikoki berrituko dira, harreraren baxa berariaz adierazi eta dagokion dokumentua sinatu ezean.
- “Klub” taldeetan plaza mantentzeko eskubidea galduko da jarduerera hiru astez jarraian ez etortzeagatik.

#### **BAJAK IKASTAROETAN**

- “Kirol Ekintzak” kuotan edo “Klub” jardueretako batean baja eman nahi duen pertsonak harreraren adierazi beharko du aurreko hilabeteko 20a baino lehen. Horretarako, bidezko dokumentua sinatu beharko da. Hilaren 20a igarotakoan, ez da baxarik onartuko.

#### **IKASTAROAK BERTAN BEHERA UZTEA ETA ANTOLAKETA ALDAKETAK**

- Errenteriako Udalak jarduera bertan behera utzi ahal izango du ikastaroa egiteko gutxieneko pertsona kopuru batek izena ematen ez badu.
- Errenteriako Udalak, antolaketa arazoak direla eta, ikastaroen ordutegia eta egunak, eta instalazioak aldatu ahal izango ditu, baita ikastaroak ematen dituzten langileak aldatu ere.

#### **IKASTAROEN ORDAINKETAK**

- Abonu orokorraren modalitatean abonatutako pertsonen “Kirol Ekintzak” izeneko sortan programatutako jardueretan parte hartu ahal izango dute, beren kuotan sartutako zerbitzuen zati gisa.
- Igerileku modalitatean abonatutako pertsonen “Kirol Ekintzak” izeneko kuota ordaindu beharko dute “Kirol Ekintzak” jardueretako sortan parte hartu ahal izateko.
- “Klub” eta “Kirol Ekintzak” jardueren ordainketak bankutik helbideratuta eta hilean behin kobratuko dira.
- Alta berriak izena emateko momentuan esku diruz edo txartelaz ordaindu beharko dira. Gainontzeko kuotak bankutik helbideratuta kobratuko dira.
- “Klub” jardueren kasuan nahiz eta hilabete bakoitzak saio kopuru desberdina eduki ikastaroaren hilabeteko kuotaren emaitza finkoa da.
- Ordaindu ezean, plaza eta beste ikastaro batzuetan izena emateko eskubidea galduko dira.

#### **ALDAGELEN ERABILERA**

- Derrigorrezkoa da ikastarogileentzat erreserbatutako aldagelak soilik erabiltzea
- Derrigorrezkoa da instalazioko langileen jarraibideei jarraitzea.
- Derrigorrezkoa da dutxa guneetan sartzeko oinetako egokiak erabiltzea (txankletak edo antzekoak)